



EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 13koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioen arteko 2023/2024ko, erkidego mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

Hezkuntza sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko aginduak (2023ko abenduaren 1ekoa EHAA), Maisu-maistren Kidegoko funtzionario irakasleen artean 2023/2024ko ikasturtean, erkidego mailako, lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeitaseigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioen arteko 2023/2024ko, erkidego mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2024ko maiatzaren 15etik 21era, bi egun horiek barne.

Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>. Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze-lehiaketa / Behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioa edo lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egitea.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 13an